

## MILURTEKO EKOSISTEMEN EBALUAZIOA BIZKAIAN

Giza ongizatea eta ekosistemak



Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa Bizkaian  
Evaluación de los Ecosistemas  
del Milenio en Bizkaia

## EVALUACIÓN DE LOS ECOSISTEMAS DEL MILENIO EN BIZKAIA

Bienestar humano y Ecosistemas



Ba al zenekien naturako ekosistemek betetzen dituzten funtzioei esker gizarteak onura ekologiko, sozial eta ekonomiko handiak lortzen dituela, eta onura horiek ez direla beti aintzat hartzen?


¿Sabías que los ecosistemas naturales mediante las funciones que realizan, proveen a la sociedad de importantes beneficios ambientales, culturales y económicos, y que estos beneficios no se tienen siempre en cuenta?

Gure ekosistemak eta haiek ematen dizkiguten zerbitzuak eta onurak hobeto ezagutzen eta balioesten baditugu, ingurumen osasungarriagoa lortuko dugu. Gure ongizatea eta ondorengo belaunaldiena ezagutza eta balioespen horien mende daude. Horregatik, Milurteko Ekosistemen Ebaluazioaren jarraipen prozesu globalean tokiko ebaluazio baten bidez parte hartzeko apustua egin du Bizkaia: **Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa Bizkaian**.

Conociendo y valorando mejor nuestros ecosistemas, así como los servicios y beneficios que nos proporcionan, lograremos un medio ambiente más sano, fundamental para nuestro bienestar y el de las generaciones futuras que dependen de ello. Por eso, en Bizkaia se ha apostado por participar en el proceso global de continuación de la Evaluación de los Ecosistemas del Milenio a través de una evaluación local: el proyecto **Evaluación de los Ecosistemas del Milenio en Bizkaia**.


## Kalitateko ingurumena behar dugu gure osasuna eta ongizatea bermatzeko

Bizkaian, munduko beste leku batzuetan bezala, ekosistemez baliatzeak biztanleen ongizatea eta garapen ekonomikoa hobetu ditu, baina gure ingurumenak gero eta kalte gehiago pairatzen ditu.



## Nuestra salud y bienestar dependen de un medio ambiente de calidad

En Bizkaia, como en otras partes del mundo, el aprovechamiento de los ecosistemas ha mejorado el bienestar y el desarrollo económico de la población, pero con un costo creciente en nuestro entorno.



Bai indibidualki zein taldeka egunerokoan hartzen ditugun erabakiek ekosistemengan eta haiek ematen dizkiguten zerbitzuengan eragin zuzena dute, eta gure ongizatean ondorio positibo edo negatiboak dituzte.

**Ekosistemak eta haiek ematen dizkiguten zerbitzuak funtsezkoak dira gure ongizaterako; horregatik, ekosistema eta zerbitzu horiei dagokien balioa eman eta haien kontserbazioaren aldeko apustua egin behar dugu.**

**Gure jarduerak eta politikek ekosistemen kudeaketa iraunkorra izan behar dute helburu, haiek ematen dizkiguten zerbitzuez gozaten jarraitu nahi badugu.**

## MILURTEKO EKOSISTEMEN EBALUAZIOA BIZKAIAN

Bizkaian Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa proiektuaren bidez, ezagutza lortu nahi da, gure ekosistemak hobeto balioesteko, eta haiek ematen dizkiguten zerbitzuez edo onurez jabetzeko; hartara, kudeatzaileen eskuetan tresna baliagarriak jartzen ditugu, erabakiak hartzeko lagungarri izango direnak.

Horretarako, Nazio Batuen Milurteko Ekosistemen Ebaluazioak garatutako metodologia Bizkaian aplikatzen hasi zen 2008an. Maila azpiglobalean egiten ari diren ebaluazio ofizialetako bat da, hain zuzen ere.

Ikerketa bi eskala desberdinetan gauzatzen ari da: bat orokorra, Bizkaia guztian, eta bestea, berriz, tokian tokioa:

- Eskala orokorrean, aztarna ekologikoa eta baso ekosistemak aztertzen dira.
- Tokiko eskalan, ekosistema-mota desberdinak dituzten Bizkaiko lau gunek aztertzen dira eta hautatutako ekosistema horien funtzioen eta zerbitzuen analisia egiten da.

Las decisiones que tomamos en nuestro día a día, tanto individuales como colectivas, afectan a los ecosistemas, y de manera directa a los servicios que nos proveen, influyendo positiva o negativamente a nuestro bienestar.

**Los ecosistemas y los servicios que nos proveen son fundamentales para nuestro bienestar, por eso debemos otorgarles el valor que les corresponde y apostar por su conservación.**

**Es necesario orientar nuestras actuaciones y políticas a la gestión sostenible de los ecosistemas, si queremos seguir gozando de los servicios que nos prestan.**

## EVALUACIÓN DE LOS ECOSISTEMAS DEL MILENIO EN BIZKAIA

A través del proyecto Evaluación de los Ecosistemas del Milenio en Bizkaia se pretende generar conocimiento para valorar mejor nuestros ecosistemas, así como los servicios o beneficios que nos proporcionan, y de este modo, dotar de herramientas a los gestores para facilitar la toma de decisiones.

Para ello, en 2008 se comenzó a aplicar en Bizkaia la metodología desarrollada por la Evaluación de Ecosistemas del Milenio de Naciones Unidas. Se trata de una de las evaluaciones sub-globales oficiales que se están realizando en la actualidad.

El estudio está siendo llevado a cabo a dos escalas diferenciadas, una general para Bizkaia y otra más local:

- A escala general se estudian la Huella Ecológica y los ecosistemas forestales.
- A escala local, se estudian cuatro zonas de Bizkaia con distintos tipos de ecosistemas, donde se analizan las diferentes funciones y servicios de los ecosistemas seleccionados.

# Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa Bizkaian

## Evaluación de los Ecosistemas del Milenio en Bizkaia


Lurraldeko Azterna Ekologikoa eta baso ekosistemen zerbitzuak aztertzen dira Bizkaian.

En Bizkaia se estudia la Huella Ecológica del territorio, así como los servicios de los ecosistemas forestales.

### 02

**Urdaibai**

Erregulazio zerbitzuak (kostaldea)  
Servicios de regulación (costa)



### 01

**Bilbao Metropolitarr**

Bilboaldeko Ingurune Berdeko zerbitzu kulturalak

Servicios culturales del Cinturón Verde



**Bizkaia**


Hedadura: 221.090 hektarea  
Populazioa: 1.142.523 biztanle

Extensión: 221.090 hectáreas  
Poblacion total: 1.142.523 habitantes

### 03

**Lea**

Hornidura zerbitzuak (atlantikoko landazabala eta ibai ekosistema)  
Servicios de abastecimiento (campiña atlántica y ecosistema fluvial)



### 04

**Urkiola**

Erregulazio zerbitzuak (basoa eta karst)

Servicios de regulación (bosque y karst)



### Espero diren emaitzak

- Ekosistemen zerbitzuen eboluzioa eta hauek gizakien ongizatean duten eragina ezagutzea.
- Etorkizunerako eszenatokiak proposatzea: 30-40 urtetara.

### Resultados esperados:

- Conocer la evolución de los servicios de los ecosistemas y su relación con el bienestar humano.
- Proyectar escenarios futuros a 30-40 años.

# ZERGATIK EBALUATZEN DIRA BIZKAIKO EKOSISTEMAK?

## ¿POR QUÉ EVALUAR LOS ECOSISTEMAS DE BIZKAIA?



**Iosu Madariaga**  
Bizkaiko Ingurumen diputatu forala  
Diputado foral de Medio Ambiente

«Metodologia berritzaile horri esker Bizkaiko Lurralde Historikoari buruz sortutako ezagutza berriek Bizkaia 21 programa (garapen iraunkorrerako Bizkaiko Foru Aldundiaren estrategia) oinarri hobeekin bultzatzeko aukera izango dugu».

«Los nuevos conocimientos generados sobre el Territorio Histórico de Bizkaia, gracias a esta innovadora metodología, nos permitirán impulsar con mejores bases el Programa Bizkaia 21, la estrategia de la Diputación Foral de Bizkaia para el desarrollo sostenible».



**Mikel Mancisidor**  
UNESCO Etxearen zuzendaria  
Director de UNESCO Etxea

«Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa Bizkaian proiektua Nazio Batuek ofizialki onartu dute ebaluazio azpiglobal bezala. Ebaluazio honek, tokiko eskalatik prozesu globalerako datuak eskainiko ditu. Gure etorkizunean eragingo duten erabakiak gaur hartzeko aukera ematen du».

«La Evaluación de Ecosistemas del Milenio en Bizkaia, oficialmente reconocida por las Naciones Unidas como una nueva evaluación sub-global, reportará datos al proceso global desde la escala local. Es una oportunidad para tomar decisiones hoy que afectarán a nuestro futuro».



**Miren Onaindia**  
Ekologia katedraduna eta UPV/EHUko Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntza UNESCO Katedraren koordinatzailea  
Catedrática en Ecología y coordinadora de la Cátedra UNESCO sobre Desarrollo Sostenible y Educación Ambiental de la UPV/EHU

«Proiektuak Bizkaiko gizarte eta ingurumen-arazoak aztertzen ditu diziplinaz gaindiko ikuspegi batetik. Hau da, Bizkaiko gizartearen eta ingurumenaren arazoak aztertzen dira zientzialarien, politikarien, teknikarien eta inplikaturako beste eragile batzuen partaidetzarekin».

«El proyecto estudia la problemática socio-ambiental de Bizkaia con un enfoque transdisciplinar. Es decir, se estudian los problemas sociales y ambientales de Bizkaia con la participación de científicos, políticos, técnicos y otros agentes implicados».



**Salvatore Arico**  
UNESCOren MAB programako eta Nazio Batuetako Milurteko Ebaluazioaren proiektuko ordezkaria  
Representante del Programa MAB de la UNESCO y del proyecto Evaluación del Milenio de NNUU

«Ebaluazio azpiglobalak, esate baterako Bizkaikoa, premiazkoak dira ekosistemen artean desberdintasun handiak daudelako denboran eta espazioan zehar, eta baita kudeaketa egoki batek tokiko planifikazioa eta ekintzen beharra duelako».

«Las evaluaciones sub-globales, como la de Bizkaia, son necesarias porque los ecosistemas tienen grandes diferencias en el espacio y en el tiempo, y porque una gestión adecuada requiere de planificación y acción local».

**Garrantzitsuena da gure ekosistemen osasunean eragina duten erabakiak egunero hartzen dituzten pertsonen ekosistema horien balioaz jabetzea, erabakiak har ditzaten gure ongizatea eta gure ondorengo belaunaldia arriskuan jarri gabe.**

## Nork hartzen du parte?

Euskal Herriko Unibertsitateko Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedra 'Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa Bizkaian' ikerketa-proiektua gauzatzen ari da, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Gainera, proiektuan parte hartzen dute UNESCO Etxeak (Euskal Herriko UNESCO zentroak) eta Madrigo Unibertsitate Autonomoak, Ekologia unibertsitate arteko sailaren bidez.

Informa zaitetz eta parte hartu: [www.ehu.es/cdsea](http://www.ehu.es/cdsea)

Lo más importante es que las personas que en su día a día toman decisiones que afectan a la salud de nuestros ecosistemas reconozcan el valor de estos, de cara a tomar unas decisiones que no comprometan nuestro bienestar ni el de las generaciones venideras.

## ¿Quiénes participan?

La Cátedra UNESCO sobre Desarrollo Sostenible y Educación Ambiental de la Universidad del País Vasco, con el apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia, está llevando a cabo el proyecto de investigación 'Evaluación de los Ecosistemas del Milenio en Bizkaia'.

Además, en el proyecto participan UNESCO Etxea (Centro UNESCO País Vasco) y la Universidad Autónoma de Madrid, a través del Departamento Interuniversitario de Ecología.

Infórmate y participa: [www.ehu.es/cdsea](http://www.ehu.es/cdsea)

